

## AURKEZPENA

*Aurtengoa, 2020a, urte gogorra izaten ari da ikerketarako, COVID-19ak hainbat hilabetetan konfinatuzera behartu baititu egileak eta, gainera, artxiboak eta liburutegiak itxita egon baitira, eta horietako batzuk, oraindik ere, itxita daude edo kontsultak egiteko murrizketa handiak dituzte. Baina, hala eta guztiz ere, esku artean duzu Buletin berria.*

*Ale berezia dugu 53. hau. Ale “duina” sortzeko, aurreko aleak baino kaxkarra-  
goa ez izateko, deiari erantzunez egileek egin duten ahalegin itzelaren emaitza da,  
eta uste dugu larregi lortu dutela 600 orrialde inprimatuak ikusita eta ale hau osa-  
tzen duten zazpi artikuluetatik lau 100 orrialdetik gorakoak direla kontuan hartuta.*

*Etorkizunak aldaketa pertsonal, sozial eta ekonomiko handiak ekarriko dizkigu,  
eta aldaketa horiek ezinbestez islatuko dira aurrerantzean egingo diren buletinetan,  
besteak beste aurreikusten baita jendaurreko aurkezpenak negutik udaberrira atze-  
ratu beharko direla.*

*Ondo asko jabetzen gara Buletinak 53 aleetan ahalegin handia egin duela  
memoria historikoa berreskuratzeko, bai Gipuzkoako historiari dagokionez, oro har,  
bai Donostiako historiari dagokionez, bereziki (helburu hori beti oso gogoan izan du  
1964an sortu zenetik).*

*Betebehar morala da guretzat Buletina sendotzea, ahal den neurrian formari eta  
funtsari buruzko alderdiak hobetzea, hain zuzen ere, etorkizunean gure lurraldean lan  
historikoa egiten jarrai dezan ziurtatzeko. Adierazi behar da lan eredugarria dela, bes-  
talde, agiri historikoen gabezia handia duen hiri bat eta probintziako hiriburua bat izanik  
(1813an izandako sute ikaragarriaren ondorioz), bertako ikerlari-egileen lan bikainari  
eta Historia Donostiarraren Doctor Camino Taldea bere baitan duen Kutxa Fundazioak  
bere gain hartutako konpromiso irmoari esker berreskuratzen ari baita.*

*Kasu honetan, beti bezala, Buletina bi zatitan banatu da: Azterlanak eta Oharrak.  
Lehenengo atalean azterlan luze eta osoak jaso dira ordena kronologikoan, eta Oharren  
atalean, berriz, laburrak edo egiten ari diren ikerketa batzuetako intereseko gaiak.*

### Azterlanak

*Lehenengo M<sup>a</sup> Rosa Ayerbe Iribarren azterlana da: “Los excluidos. El último  
enfrentamiento entre la Provincia de Guipúzcoa y sus Parientes Mayores (1624-  
1631)”. Azterlanean ulertu nahi da ordenantza egiaztatuen bidez XIV. mendean*

sortu zen Gipuzkoako Ermandadetik berariaz kanporatu ziren eta Ermandadea osatzen zuten herriekiko bizimodu paraleloa eraman zuten Ahaide Nagusiak nola integratu ziren bertan XVII. mendetik aurrera, 1624tik 1631ra arte luzatu zen prozesu judizialaren eta enfrentamendu luze eta gogor baten ondoren. Prozesua berez ez zen amaitu, dirudienez akordio edo adostasun batera iritsi baitziren aldeak, etorkizunearn udaletako eta Probintziako ofizio publikoetan Gipuzkoako gainerako kapareen maila berean parte har zezaten. Izan ere, XVII. mendeko Gipuzkoa ez zen aurreko bi mendeetako bezalakoa. Erregeak 1610ean aitortu zuen gipuzkoar guztien kaparetasun unibertsala, Ahaide Nagusien odoleko noblezia zaharra kapare-noblezia berriarekin berdinduz, eta 1615ean aitortu zitzaizen hiribildu-pribilegioa XIV. eta XV. mendeetan Erdi Aroko hiribildu handietara herritartu ziren herririk askori (horien artean, Andoain, Amezketa, Berastegi edo Zizurkil, euren oinetxeen egoitza), eta euren etxetara hurbildu zen horietako alkateen eta agintarien jarduera. Prozesua Probintziaren interpretazio-akats batengatik hasi bazen ere, zalantzan jarri baitzen Ahaide Nagusiek Koroak eskatutako soldadutza bere kontura antolatzeko 1612an Villabonan egin zuten batzarra (korrejidorearen baimenarekin egin baitzuten), gauzak nahasten joan ziren Probintziak Gipuzkoan, Nafarroan eta Gortean ongi errotuta zeuden Ahaide Nagusien aurka jo zuenean, probintzia-antolakundea bera zalantzan jarritzak. Zarauzko oinetxeko jaunaren, Pedro Ortiz de Zarauzen, bitartekaritzak eta aldeek adostasun batera iritsi nahi izateak eman zioten amaiera Gipuzkoako Probintziatik eta Ermandadetik kanpora utzitako bakarrak integratzeko prozesuari.

M<sup>a</sup> Rosario Roquero Ussiak, bestalde, emakumeari buruzko beste azterlan bat dakarkigu, bere ikerketaren lerro nagusia izanik, “Mujeres con carácter. San Sebastián (s. XVIII-XIX)” lanaren bidez. Azterlanean, egileak berak adierazten duen bezala, emakume donostiarrek, babesgabetasun eta urrakortasun giro lauso batean, euren portaera etengabe zaintzen eta aztertzen zen garai batean, aurre egin beharreko oztopoak planteatzen ditu, bai pentsaera sozialarekin zerikusia dutenak bai emakumeen eguneroko bizimoduarekin eta ardurekin zerikusia dutenak. Bertan hainbat eta hainbat oztopori aurre egiteko emakume donostiarren izaera borrokaria eta kemena azpimarratzen ditu, eta, alde batetik, dama dotoreak, bizimodu lasaia eta laxoa zutenak, burgesiaren edo merkataritzaren munduko ongi hezitako damak eta, bestetik, gizarteak ezarritako mugak eta babesgabetasun-egoera gorabehera bizimodua atera behar izaten zuten emakume “borrokalaria” bereizten ditu. Eta emakume horietan jartzen du arreta bere azterlanean. Egileak garai hartako emakumeen “inprobisaziorako artea” aipatzen du, bizitzan zehar hainbat diziplina garatzen baitzituzten. Emakumeak denetik egiten zuen, denetik jakiten baitzuen, eta, ez bazekien, praktikarekin ikasten zuen. Horri esker era askotako lanak egin ahal zitzakeen eta lana aurkitzeko aukera handiak izaten zituen familiaren ekonomiak hala eskatzen bazuen, nahiz eta beti modu irregularrean eta behin-behinekoan egin behar izaten zuen.

Egileak oparo dokumentatzen du donostiar emakume aberatsaren egoera, eta, bereziki, bizimodua ateratzeko baliabide pertsonalak erabili behar izaten zituztenena, eta, besteak beste, honakoak aipatzen ditu: errekdariak, herrietako merkaturtan kontsumoko produktuak saltzen aritzen zirenak; ehun eta oihal saltzaileak; dendetan eta etxoletan jangaiak eta erregaiak saltzen zituzten dendariak edo saltzaileak; areatzetan, mandazainek Gaztelan saltzeko jasotzen zuten arte, bakailoa

lehortzeaz eta xerratzeaz arduratzen ziren emakumeak; “ontzietako huskeriak” (besteak beste, kakao hondarrak) saltzera hirira hurbiltzen ziren saltzaileak; neska garraiatzaileak (bale edo bakailao koipea, karea, harria, teilak eta hiriko kaira gabarretan iristen ziren gainerako ondasunak garraiatzen zituztenak); ontzietara lasta (harriak edo hondar eta harri zakuak) eramaten zuten emakumeak, Pasaiaiko portutik atera ondoren, ontziek bertan botatzen baitzuten salgaiak kargatzen zituztenean, edo inguruko harrobietatik hartu ondoren; ostalari eta tabernariak, “alaiak edo errazak” edo “adore handikoak” izateko fama izaten zutenak eta mandazainak, soldaduak, marinela edo bidaiariak zerbitzatzeko prest egoten zirenak, eta askotan prostituten eta bezeroen arteko artekariak ere izaten zirenak; labezainak edo okinak, ogiak eta gozoak egiten zituztenak; arropa-garbitzaileak, normalean inguruko baserrietatik erreketan arropa garbitzera etortzen zirenak; edoskitu ezin zituzten amen haurren edo umezurtzen edo haur abandonatuen inudeak; neskameak, etxeko lanak egiten zekiten eta otzantasun eta pairamen handiko gazteak; hiletariak, hildakoak gaubeilatzten zituzten eta ehorzketetan ogia ematen zutenak; edo lihoa, zeta, dirua edo janaria Frantziatik aduanen kontrolik gabe kontrabandoan pasatzen zuten emakumeak. Bereziki aipagarria izan zen emakume merkatarien lana; kasu askotan aitaren edo senarraren negozioarekin jarraitzen zuten alargunak izaten ziren, eta egileak Rosa Bermingham, Cayetana Parada (Manuel Colladoren alarguna), M<sup>a</sup> Josefa Soroa y Zuaznabar eta Manuela Larramendi aipatzen ditu. Gehienek XIX. mendean zehar garatu zuten euren jarduera.

Egileak, azkenik, aipatzen du emakumeek familian eta bizitza pertsonalean zuten babesgabetasun-egoera (senarren mende zeudenean; “bizimodu lizunkoia” izatea salatzen zitzaienean —eta bide okerretik joandako emakumeentzako edo emagalduentzako galera edo zentza-etxeetan sartzen zituzten—, prostituzioan edo artekari lanetan aritzen zirenean, edo haurrak abandonatzen edo hiltzen zituztenean), senarrek itsasoz beste aldera emigratzen zutenean edo senar on bat bilatzeko odol garbikoa izatea eskatzen zitzaienean.

Jose Mari Iparragirre bardoa jaio zeneko bigarren mendea bete den honetan, Pedro Berriochoa Azcáratek Urretxun jaio zen bardoaren bizitzari buruzko azterlan eder eta dokumentatu bat egin du: “Un Bicentenario, José María Iparraguirre (1820-1881). A corrie y contracorrie”. Lanean hasieratik nabarmentzen du bere bizimodu alderraia, I. Gerra Karlistan parte hartu zuenetik. Gaztetan Europako hainbat herrialdetan ibili zen, eta, azkenean, Amerikan, batez ere Uruguain errotu zen, bertan familia sortu eta 8 seme-alaba izan zituen, eta familia han utzita Gipuzkoako etxera itzuli eta bertan hil zen. Egileak bere garaiko ongi bereizitako hiru koordinatutan kokatzen du Iparragirreraren irudia: foruzaletasuna (XIX. mendean liberalismoa-*ren aurrez aurre* zegoen doktrina politiko gisa), erromantizismoa (kultur-mugimendu gisa, bere begirada sentimenduetara eta “irrazionala” zenera bideratu zuena XVIII. mendeko ilustrazioaren arrazionalismoaren aurrean) eta katolizismoa (oinarri erlijioso moduan, bere haurtzaroa Elizaren itzalean pasatu baitzuen). Egileak bere bizitzaren kontakizuna egitean adierazten du Espainian, European eta Amerikan barrena, batetik bestera noraezean, alderrai ibili zela, oinarririk eta etxerik gabe. Egileak zehaztasunez aztertzen ditu bere haurtzaroa eta gaztaroa, eta gogora ekartzen du 14 urte baino ez zituela Gerra Karlistan parte hartu zuenean. Aipatzen du zauriz josita bukatu zuela eta, dirudienez, gitarra jotzen ikasi zuela. Gero, erbesteratuta, batez

*ere Frantzian eta Ingalaterran ibili zen, eta Espainiara Manuel de Mazarredo jeneral liberalak egindako kudeaketei esker itzuli zen 1852an; orduan konposatu zuen Gernikako Arbola kanta ezaguna, zortziko doinuuan, Euskal Herriko ereserki katoliko, bakezale eta internazionalistatzat jo izan dena. Horren ondorioz Tolosan preso sartu zuten eta 2 urtez erbesteratu zuten.*

*M<sup>a</sup> Angela Querejetari ezkon-hitza eman ondoren, Buenos Airesera joan ziren, eta bertan ezkondu ziren 1858an. Ondoren bera Uruguaira joan zen bizimodua ateratzera, eta artzain ibili zen. Montevideon El Árbol de Guernica kafe-etxea ireki zuten, arrakasta handia izan zuena baina etekin eskasa eman ziona, eta ia berehala itxi eta berriz ere artzaintzara itzuli zen. Bere kantari espiritua berreskuratu ondoren eta atzerrira joandako beste euskaldun batzuen laguntzaz, 1877an, urtebete lehengo ezeztatu ziren foruak defendatzeko aitzakiarekin, behin betiko etxera itzuli zen bere familia atzean utzita, bertan errotu ondoren ekartzeko itzaropenarekin. Bere kantuek eta Madrilen eta Euskal Herrian emandako kontzertuek arrakasta handia izan zuten, baina ez ziren nahikoa bizimodua aurrera ateratzeko, eta bere adiskideei esker lortu zuen hilean 22 duroko pentsioa lau diputazioetatik. Diru asko ez bazen ere, eta adiskideek Amerikatik bidaltzen zioten diruarekin, aurrera atera ahal izan zen 1881ean hil zen arte. Urretxun egin zen bere hiletara jende asko hurbildu zen. Bere lagun nafar eta arabarrek mausoleo bat egiteko eskatu zuten, baina estatua bat baino ez zioten egin. Mausoleoa 1981ean egin zuten, bere heriotzaren ehungarren urteurrenean. Azterlanaren amaieran gaur egun nahiko ahaztuta dauden bere figurari eta lanari buruzko hainbat hausnarketa egiten ditu egileak.*

*Carlos Rilova Jericó euskal liberalismoari buruzko azterlan luze bat dakarkigu. “Nuevos apuntes para la historia del Liberalismo vasco. Del Duque de Mandas al General Arzadun, del Trienio Liberal al Trienio Bolchevique (1820-1920)” izenburupean, Gipuzkoako historiaren mende bateko lerro nagusiak zehazten dizkigu. Konbentzio gerratik aurrera (1794-1795) Frantziako ideia iraultzaileak Gipuzkoako lurraldean errotu izana oinarritzat hartuta, egileak, purga sistematikoaren ondorioz agiri gutxi dagoen arren eta, batez ere, argitara eman gabeko dokumentazio publiko eta pribatuari esker, euskal liberalismoaren bilakaera politikoaren berri ematen du, historialariek, karlismoari eskainitako arretarekin alderatuta, gaiari eskaini izan dioten arreta eskasa nolabait ere orekatu nahian. Horretarako, erreferentzia gisa 1820. urtea (Hirurteko Liberalaren hasiera) eta 1920. urtea (iraultza boltxebikearen arrakasta ekarri zuen Errusiako Gerra Zibilar gutxi gorabehera behin betiko amaiera zitaion urtea) hartzen ditu. Erreferente moduan, berriz, berak aztertutako Mandasko Dukea (Fermin Lasala y Collado) eta Juan Arzadun Zabala bermeotarra, Brigadako jenerala eta Donostiako gobernadore militarra izan zena, hartzen ditu.*

*Egileak adierazten duenez Gipuzkoako liberalismoa Konbentzio Gerran bertan sortu zen, bertako biztanleak bitan banatu ondoren: Antzinako Erregimena defendatzen zutenak (absolutistak edo kontserbadoreak) eta Gerrarekin iritsi ziren ideia iraultzaile berrien aldekoak (liberalak); horiek gero eta gehiago ziren XIX. mendeak aurrera egin ahala, eta esan daiteke 1794 eta 1820 artean ideia iraultzaileak, liberalak, finkatzen joan zirela Donostiako eta Gipuzkoako lurraldean. Hirurteko Liberalari (1820-1823) dagokionez, egileak Gipuzkoako Korrejimenduaren artxi-boan jasotako hainbat kasu planteatzen ditu (Iturralde anaiak, Celedonio Retegui,*

*Manuela de las Cuevas edo Juan Antonio de Aldecoa), eta horien bidez ikus daiteke printzipio liberalak nola aplikatu ziren Donostian. Esan daiteke Angulemaren aginduetara San Luisen Ehun Mila Semeek esku hartu izan ez balute, erregimen liberala erabat finkatuta geratuko zela garai hartan bai Gipuzkoan bai Espainian. Hala ere, liberalismoa mantendu egin zen Gipuzkoan, eta, bereziki, Donostian, eta Espainiako boterean txandatzen joan zen harik eta 1876an absolutisten kausaren gainetik behin betiko gailendu zen arte. Bien bitartean liberalismoa gogoko ez zuen (bai absolutismoarekiko fideltasunagatik eta debozioagatik, bai biztanleriaren zati batek ideia liberalekiko xarma galdu zutelako) euskal soziologia bat sortu zen, gero sozialismoa finkatzea ekarri zuena.*

*Aldi hori aztertu ondoren, egileak 1917ko iraultza boltxebikean jartzen du arreta. Liberal askorentzat urrunegi joan zen, eta, ikuspegi sozialetik, aurretik eraman zituen. Horretarako, Juan Arzadun Zabala jeneral liberala aztertzen du. Liberalismorentzat arrisksuak, zalantza beterikoak eta itxaropenik gabeak izan ziren urteak bizi izan zituen, iraultza hartatik (Errusiara komunismoa eraman zuena) 1920ko Errusiaren mehatxuaren aurrean sortu zen eta bere ideologiaren gainbehera politikoa ekarri zuen faxismoaren eta autoritarismo militarren erreakziora arte (hura ere antiliberala). Horrela, egileak aztertzen ditu Donostiako prentsak babestu zuen euskal liberalismoaren erorialdia (1917-1920) (etengabe ematen baitzuen iraultzaren bilakaeraren berri) eta I. Mundu Gerra amaitu zenean Bake Unibertsala bermatzeko eta inposatzeko sortu zen Nazioen Sozietatearen eragina (sozietateak Donostiako Diputazioaren Jauregian egin zuen 1920an VII. Kontseilua, behin betiko Genevan finkatu aurretik, eta hainbat txosten aurkeztu zituzten bertan (horien artean Suediako Gurutze Gorriaren ordezkaria zen Elsa Brändströmena) preso disidenteek eta alemaniarrek Turkestanen eta, batez ere, Siberian, zuten egoera penagarriaren berri emateko (inolako eskubiderik gabe, lege-babesik eta babes juridikorik gabe, hotzak, gosez eta epidemien mende, eta bortxazko lanak egitera behartuta)). Hainbeste aldarrikatzen zen ustezko “paradisu sobietar” hura ez zen hainbesteko paradisu, eta irudi hori Arzadunen laguna zen Echagüe jeneralaren bidez helarazi zen Donostiara. Horren ondorioz liberal askok utzi zuten alde batera ideologia liberala.*

*Koldo Mitxelena Liburutegiko Erreserba Fondoan RFA britaniarreko kapitainaren, Espainian ezkondu zenean ideologia frankista bereganatu zuen Brian Thynneren, liburutegi pertsonala dagoela aprobetxatuz, egileak Arzadun jeneralaren figura aztertzen du. Jeneralak zintzo jarraitu zituen printzipio liberalak giro zail hartan, Primo de Riveraren diktaduratik (Gipuzkoako Gobernu Militarra eta Zibila jaso zuen, eta, geroago, Artilleriako Jeneraltza) txeken diktadurara (1924-1937) bitartean, eta une horretan, jeneral erretiratu moduan, aztertu egin zuten liberal gisa errepresaliatuko zuten ala ez jakiteko. Bere familiako artxiboa kontsultatu ondoren, egileak bere bizitzako une nagusiak aipatzen ditu, gauzak azkar eta sakon aldatzen ziren herri batean: nola azaltzen zuen bere “kredo liberala”, nola saiatu zen “frenurik gabeko” agintean, “eromen zesareo” baten emaitza zen eta diktadoreak eskuak lotuta eta ahoa estalita zuen prentsaren aurrean “izu zuria” (komunisten “izu gorria” deitzen zenaren aurrean) erabiltzen zuen agintean, oinarritutako Gobernu batean (diktadurarenean) parte hartzen. Eta bere egoera ez zen errazagoa izan 1936ko uztailaren 18ko altxamendutik aurrera.*

*Bi aldeentzat susmagarria izanik, Bermeoko etxean geratu zen Britainiar Inperioko Zalduna izateagatik babestuta. Hala ere, 74 zituela informazio-espiedante bat ireki zioten 1937ko uztailaren 13an, marxistekin ez zuela bat egin eta ordenaren eskuineko ideologia zuela seinalatuz, baina kasua artxibatu egin zen. Horri esker urte batzuetan lasai bizi ahal izan zen, idazten eta bere lanak argitara ematen, argi izanda, egileak adierazten duen bezala, hobe zela Franco bat Stalin bat baino. Historiarekiko grinak bultzatuta, 1942an Fernando VII y su tiempo liburua argitaratu zuen (batez ere Erregeak bere idazkari Juan Miguel de Grijalbarekin 1824tik 1833ra izan zuen posta-trukeko 700 bat gutunetan eta Castaños jeneralaren iloba zen Pedro Girón jeneralaren memorieta oinarrituta). Liburuan gaitzetsi egiten zuen Primo de Riveraren diktaduran ere gaitzetsi zuen erregimen absolutista, eta eredutzat Altxamendu Nazionala hartu zuen, nolabait ere egiaztatuz Fernando VII. arekin sortu zirela Erregimen frankista berriak ukatzen zituen “bi Espainiak”, aurrez aurre zeuden Erregimeneko “Espainia, Bat, Bakarra eta Librea” eta Ilustraziotik sortutako bere etsaien “Antiespaña”.*

*Azterlanaren amaieran Gerra Zibilean aurrez aurre egon ziren 2 bandoek, Fernando VII.aren Espainian sortutako absolutisten eta liberalen oinordekoek, frankismoak onartu nahi izan ez zituen bi Espainiak osatzen zituztenek, elkarren kontra gauzatu zituzten errepresaliei eta ekintzei buruzko gogoetak egiten ditu egileak. Adierazten du 1917ko iraultza boltxebikearekin Errusian gertatutakoak (Espainian 1918an eta 1936an imitatu zenak) sortu zuen izuaren ondorioz desertorez bete zirela Europako liberalismoaren lerroak, eta faxismora eta totalismoetara eta horien tokian tokiko suzedaneo autoritarioetara pasatu zirela, salbuespen ausart eta ohoragarri batzuekin, eta horietako bat izan zen Juan de Arzadun.*

*Pedro Gorrotxategi Gorrotxategik, Miguel Zafra Antak, Ainhoa Zabaleta Ruedak eta Víctor García Nietok aurkezten duten gaia bi medikuri buruzkoa da, Manuel Bago Aguirre eta José Bago Lecosais aita-semeei buruzkoa. “Los Doctores Bago. Dos médicos guipuzcoanos represaliados tras la Guerra Civil” izenburupean, euren herritik alde egin eta Frantzia babesa hartu behar izan zuten beste 20.000 pertsona bezala, 1936ko Gerraren ondorioz errepresaliatuak eta erbestertuak izan ziren Errepublikaren aldeko bi medikuen bitzita eta lana aztertzen dituzte. Donostiak bertako biztanleriaren ia % 50 galdu zuen garai hartan. Manuel Bagok, aitak, itzuli zenean, isuna ordaindu behar izan zuen; eta José Bagori, semeari, Errepublikarekin aita baino konprometituago zegoenari, heriotza-zigorra ezarri zioten, eta Errepublikaren kontra altxatutako armadako Gómez Ulla jeneralarekin trukatu zutelako saihestu ahal izan zuen. Alderdi politikoa alde batera utzita, egileek Gipuzkoako Medikuntzaren Historian batere ezagunak ez diren Bago doktokeen jardura profesionala ere aztertzen dute. Manuel Tolosan jaiotzen 1870ean, 1894an lizentziatu zen eta Itziarren (Deban) hartu zuen plaza. Bertan idatzi zuen, Martín Aramburu medikuarekin batera, eta bi hizkuntzatan, “Manual de Higiene y Medicina Popular”. Liburua oso baliagarritzat eta onuragarritzat jo zuen Sociedad Económica Vascongada sozietateko Medikuen Batzordeak. Gipuzkoako medikuak ordezkatu zituen Donostian egin ziren Medikuntzako eta Pediatriako 3 biltzarretan. Gipuzkoako Medikuen Elkargoan argitaratutako Guipúzcoa Médica aldizkariko eta hiriko beste hainbat kultur-aldizkaritako ohiko kolaboratzailea izan zen. Lotura politiko ezagunik ez zuen arren, Frantziara igaro zen 1937an, eta itzuli zenean 3.000 pezetako isuna ordaintzera kondenatu zuen Erantzukizun Politikoen Auzitegiak.*

*Bere semea, José, 1900ean jaio zen Donostian, eta Madrilen lizentziatu zen 1923an. Aitarekin batera parte hartu zuen Guipúzcoa Médica aldizkarian. Gastroenterologian (digestio-aparatuan) aritu zen, eta laster sartu zen politika munduan. 1930an espetxean sartu zuten Errepublikaren Aldeko Iraultza Batzordeko kidea izateagatik, eta heriotza-zigorra ezarri zioten. Errepublika ezarri zenean, mitin askotan parte hartu zuen, baina ez zuen inolako kargurik hartu. Medikuntzan egin zuen lan, eta Donostiako Medikuntzako Ordezkariordea eta Gipuzkoako Akademia Mediko Kirurgikoko lehendakaria izan zen (Gipuzkoako Medikuen Elkargoaren jarduera zientifikoak zentralizatu zituen), Ezkioko Ama Birjina ikusi zuten pertsona batzuk baloratzen parte hartu zuen 1931n. Gerra Zibilaren hasieran Frantziara igaro zen, eta bertan hartu zuten preso segurtasun-indar frankistek. Iruñako eta Donostiako espetxeetan egon zen, eta 1937an heriotza-zigorra ezarri zion Gerra Kontseiluak. Mediku-zirujaua zen Mariano Gómez Ulla jeneralarekin trukatu zuten 1938an, eta Argentinara joan zen. Bertan lan handia egin zuen Pediatrician eta politikan, eta Buenos Airesen hil zen 1962an.*

*Gerra Zibilarekin lotutako lana egin du Ion Urrestarazu Paradak ere, “Altza durante la Gerra Civil española” izenburupean, jada desagertuta dagoen eta 1940an Donostiari batu zitzaion Altzako hiribilduaren historia berreskuratzeko asmoz (hiribilduaren lurraldea gaur egun Altza, Bidebieta-Mirakruz, Intxaurren eta Martutene artean banatuta dago). Egileak adierazten duen bezala, hiribilduaren II. Errepublikaren garaiko isilpeko kontuak, Fronte Popularrak agintera iritsi zen ueña, Gerra Zibilaren hasiera, tokiko Defentsa Batzordearen eraketa, Mirakruzeko “txeka”, ondorengo ebakuazioa eta altxatuak iritsi ziren ueña, gatazka garaiko errepresio fisiko eta ekonomikoa, erbestea, Altza Donostiari batzea eta Bidebietako Tiro Zelai Nazionaleko fusilamenduak jasotzen dira bertan. Laburbilduta, Gipuzkoako lurraldearen historiaren baitan dagoen eta ikerlarien arreta kasu gutxi batzuetan, oraingo honetan bezala, izan ohi duen mikrohistoria da. Lekukotasun bizietan, dokumentazioan eta garaiko prentsan oinarrituta, egileak Altzako hiribilduaren XX. mendearen erdialdeko memoria historikoa azaltzen du: bertan nola bizi izan zen 1931ko hauteskundeetatik sortutako Errepublika; Gerraren hasieran Fronte Popularrak preso hartu zituen Herrerako salesiarren gorabeherak; Altzako Defentsa Batzordearen sorrera (230 pertsonak osatu zuten eta horietatik ehunek eratu zuten Altzako Lehenengo Konpainia Gorria); bertako agintariek mojak bota ondoren bereganatu zuten La Asunción komentuan zegoen eta Altzako Defentsa Batzordearen mende sortu zen Mirakruzeko txekak erlijiosoan (horien artean zegoen Valladolideko artzapezpikua zen Remigio Gandásegui) eta zibilen (besteak beste, Eugenio Egoscozabal Salazar merkataria) kontra baliatu zuten errepresioa; hilketak, desagerpenak, era guztietako indarkeria.*

*Altxatuak Altzara iritsi zirenean halako itzaropen eta beldur sentimenduak nahastu ziren, une hura bizi izan zutenen kontakizunen arabera, eta Donostia hartu zutenean, Altza erregimen berriaren mende berrantolatu behar izan zen, 1936ko “udazken beroan” errepresioa jasan ondoren eta Gipuzkoako Ondasunak Konfiskatzeko Batzorde Probintzialak bertako bizilagunen hainbat eta hainbat ondasun konfiskatu ondoren. Altzatar ugarik erbesteratu behar izan zuten Bizkaira eta Kataluniara, eta gero Frantziara. Batzuk Kantabriara pasatu ziren. Bilboko espetxeetan hil ziren txekak bidalita bertan zeuden asko eta asko, milizianoak sartu zirenean.*

*Laudagarria da egileak Altzako bizilagunak leku horietan identifikatzeko eta egin zuten bidea jarraitzeko egin duen lana. Esate baterako, Frantziako, Afrikako edo Brameko kontzentrazio-esparruetan egon zirenak; edo erbesteko Jaurlaritzak Euskadiko errefuxiatuak hartzeko Bidarten sortu zuen La Roseaire ospitalean egon ziren elbarri, ezindu eta gaixoak. Gerraosteko Altzari buruzko epilogoan 1940an, hiria zabaltzeko premiak bultzatuta, hiribildua Donostiara atxiki zeneko uea jasotzen da. Horrela amaitu zen hiribildua bereganatzeko Donostiak 1879an, 1914an, 1917an eta 1923an egin zituen ahaleginetatik independente izaten jarraitzea lortu zuen herri baten bizitza autonomoa. Donostiako Udalak 1939an proposatu zion Altzari fusioa aztertzeko Batzorde bat eratzea, eta bizilagunen protestak gorabehera, fusioa 1940ko martxoaren 9an gauzatu zen, Ministroen Kontseiluaren oniritziarekin.*

*Lanari amaiera emateko, egileak aipatzen ditu, besteak beste, Iruñan kokatuta zegoen Erantzukizun Politikoen Auzitegiak Fronte Popularraren pean subertsioa leporatu zieten altzatar batzuen kontra burutu zuen auzia; Bidebietako Tiro Zelaian fusilatutak; borrokan eta atzeraguardian hil zirenen zerrenda; gertaeren kronologia; hiribilduko Fronte Popularrarekin zerikusia izan zuten 240 pertsonaren izenak; eta bibliografia baliotsua.*

## **Oharrak**

*Azkenik, oharren atalean “Mandojana, un Corregidor corrupto de Finales del siglo XVI en Guipúzcoa” izenburua duen José Antonio Azpiazu Elorzaren azterlan bat dago. Lana atal honetan kokatu da luzerarengatik eta Gipuzkoako historiaren gai puntual bat delako. Egileak egiaztatzen duen bezala, Francisco Mandojana Zárate Erregearen korrejidorea izan zen Gipuzkoan 1586tik 1591ra bitartean, eta agintari ustelaren eredu garbia da, bere kargua bere onerako, bere administratuen kontura dirua eta onura materialak lortzeko, erabili baitzuen, horien askatasunari eta segurtasunari, eta merkataritza-interesei, kalte larria eginez. Bere praxi txarraren ondorioz, Probintziak Erregearen aurrean salatu zuen bere agintealdia amaitu aurretik. “Epaile alferra, begiluzea, ezgaia eta interesatua” zela dio egileak, eta, gainera, banan-banan dokumentatzen ditu kalifikazio guztiak. Pertsonaia zekena eta printzipio moralik gabea zela dio, eta “etsaiari” gehiegikerien eta mehatxuen bidez erantzuteko eta tratu txarrak emateko gai zela, Erregearen ordezkari izateak ematen zion abantailaz baliatuz. Bestalde, bere jarduera axolagabeari leporatzen diote Miguel de Oquendo jeneralaren Santa Ana ontzi nagusia erre izana, baina akusaziotik onik atera zen. Egileak adierazten duen bezala, Mandojana harroa, mendekaria, eskrupulurik gabea eta mendozinoa (superstizioso) izan zen, inola ere ez “buruzagi gaitua, legea errespetatzen zuen legelaria eta bere buruaz eta bere karguaren segurtasunaz oso seguru zegoen pertsona”.*

KUTXA FUNDAZIOA

HISTORIA DONOSTIARRAREN DR. CAMINO INSTITUTUA